

b.1.1. Joxeren lagunak



Joxek bere bidaietan zehar, hainbat lagun egin ditu. Lagun horien laguntza izango du umeei euskara irakasteko. Gai bakoitzean, Joxek lagun bat aurkeztuko die umeei eta lagun honek Joxek agindutako lan bat egingo du umeei bidali eta hainbat gai jorratzeko.

Hauek dira gaietan zehar aurkituko ditugun lagunak:

1. Lehenengo urratsak:

Gure lagun Joxe

Joxek bere burua aurkeztuko die umeei. Era berean, ikasturtearen nondik norakoa zehaztuko du.

2. Aurkezpena: Ni eta nire lagunak

Nire lagunak

Joxek munduan zehar dauzkan bere bost lagunak aurkeztuko dizkie umeei: Irati eta Beñat (Euskal Herria), Kintxo Barrilete (Nikaragua), Airam Aicrag (Cabo Verde) eta Gorritxo (Meung-sur-Loire).

Bere lagunen aurkezpena ikasleek euren aurkezpena jorratzen hasteko aitzakia izango da.

Gure familia

Iratik, Joxeren bilobak, bere familia aurkeztuko die ikasleei. Umeei Iratik bidalitako eredu erabiliko dute familia aurkezteko.

3. Deskripzioa: Nire herria

Kintxo Barrilete

Kintxo Barrilete Joxeren Nikaraguako laguna da. Kintxok bere buruaren aurkezpena, bere familiaren aurkezpena eta bere herriaren deskripzioa bidaliko die umeei. Birpasa gisa erabiliko dugu umeei momentu horretara arte landutako kontzeptuak ulertu dituzten ikusteko.

4. Kontaketa: Nire ohiturak

Airam Aicrag

Airamek bere eguneroko ohiturei buruz hitz egingo du. Umeei Alramen ereduari jarraituz, euren eguneroko ohiturak kontatuko dituzte.

5. Narrazioa: Nire ipuinik gustukoena

Gorritxo

Gorritxok gai guztietan zehar landutako kontzeptu guztiei buruz hitz egingo du: bere burua eta bere familia aurkeztuko ditu, bere herriko txoririk politena deskribatuko du, bere eguneroko ohiturez hitz egingo du eta bere ipuinik gustukoaren gainean hitz egingo du.

Gai guztietan zehar landutakoa birpasantzeko erabiliko dugu.